

→FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak, negozio eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da. Elkarte desberdinekin aliantzak egitea oso interesgarria da, proiektu berriak garatzeko orduan aukera asko ematen dituztelako: Negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baita, baliabideak eskuratzeko.

Gure kasuan, bi elkarterekin sortuko ditugu aliantzak. Alde batetik, herriko arropa denda txikiekin eta beste aldetik, software diseinatzaile batekin.

Lehenengoa, erosle eta hornitzaileen arteko harreman bat izango da, guk materialen eskuragarritasuna bermatzeko. Izan ere, guk sortzen dugun software-ak funtzionatu ahal izateko, enpresa txikien laguntza behar dugu, gure proiektua beraien online dendetan egongo delako bezeroentzako eskuragarri. Hau da, gure proiektuak beraien laguntzarik gabe ez litzateke posible izango, ez genuelako gure proiektua erabilgarria izaterik lortuko, eta ondorioz ez litzateke bezeroengana helduko.



Bigarren aliantzari dagokionez, Joint Venture izeko aliantza sortuko dugu, negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarte bat. Kasu honetan, eskuragarri jarriko dugun software-a diseinatzeko, informatikan eta programazioan espezializatuan den norbaiten laguntza beharko dugu. Lan hori betetzeko, gure herrietako pertsona gazte bat erabiltzea iruditu zaigu aproposena. Horrela, hemen sortutako proiektua dela esan dezakegu. Eta gainera, bertako gazteei aukera ezin hobe bat emango diegu, ikasitako guztia praktikan jartzeko, proiektu garrantzitsu batean parte hartuz. Horrela, gazteak bistaratuko ditugu.



Bi elkarte hauekin egingo ditugun aliantzak, gure proiektua modu eraginkor, apropos eta txukun batean aurrera ateratzeko izango dira.